

Prentsa oharra

Nota de prensa



2024ko aurrekontua onartu da

Udalak Finantziatzeko Foru Funtsaren likidazioari esker Udalak 1.130.000 euro gehiago bideratuko ditu hainbat inbertsio egiteko

Donostiako Udalak 2024ko aurrekontua onartu du gaurko udalbatzarrean, eta 484,7 milioi euroko aurrekontua kudeatuko du, hau da, iazkoa baino %4,7 handiagoa.

Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko zinegotzi Kerman Orbegozok azpimarratu du 2024ko aurrekontua, beste behin bere, diseinatuta dagoela behar gehien dutenei udal administrazioaren aldetik erantzun egokiena eta baliabide gehiago jasotzeko. Eta horren adibide da, Gizarte Ekintza departamentuaren aurrekontu-sailek izan duten %8,5eko igoera.

Hortaz, adierazi du, mundu osoan bizi den ziurgabetasun egoerak eragin zuzena duela Udalaren kudeaketa politiko zein ekonomikoan, eta segidakoa nabarmendu du: “Osasun larrialdia igarota bada ere, Ukrainako inbasioak eragindako krisi energetikoa, prezioen gorakada edota Gazan gertatzen ari dena ziurgabetasun egoera areagotzen ari direla, eta horrek eragina zuzena duela Udalaren kudeaketan. Horregatik, ezinbestekoa da ibilbide orri sendo bat izatea”.

Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko zinegotzi Kerman Orbegozok esan du, gizarte-gastuarekin batera udal gobernuaren lehentasuna izan dela Udalak donostiarrei eskaintzen dizkien kalitatezko zerbitzuak hobetzeko aurrekontu-sailak handitzea.

Horrenbestez, honakoa gaineratu du: “Aurrekontua martxoan eta ez aurreko urtea amaitu baino lehen onartuko bada, murrizketarik gabeko aurrekontua onartzea nahiago izan dugulako da. Izan ere, garraio publikoaren tarifetan %50eko deskontua ezartzeko dekretua onartuko zen ala ez ziurgabetasuna areagotu du, udalaren diru-kutxan izan zezakeen eragina handia zelako”.

Hori argituta, Orbegozok, segidakoa azpimarratu du: “Gure helburua hiritarrei eskaintzen zaizkien kalitatezko zerbitzuak ematen jarraitzea da. Eta horregatik, gastuaren ia bi heren kalitatezko zerbitzu publikoak ematen jarraitzeko bideratzen dira. Eta horietatik 71,8 milioi euro aurreikusi dira Donostia hiri txukuna, garbia eta ederra izaten jarraitzeko behar diren mantentze zerbitzuak eskaintzeko”.

Era berean, Aurrekontua kudeatzeko zinegotziak esan du, Udal gobernuak inbertsioari garrantzi handia eman diola, eta 67,3 milioi euro bideratu dituela auzo ezberdinetan hainbat jarduketa garatzeko, eta horien artean hiritarrek proposatutako eta bozkaturako hainbat proiektu daudela gogoratu du.

Prentsa oharra

Nota de prensa

Horiek horrela, Obegozok gogorarazi du, Etxebizitza dela udal gobernuaren programaren ardatz nagusia: “Udalak aurreikusi du 83,2 milioi euroko inbertsioa egitea hiriko hainbat eremutan 2024tik 2027ra arte 282 babestutako etxebizitza publiko eta 38 zuzkidura bizitoki berri eraikitzeko eta eremu horien urbanizazio lanak egiteko. Eta hori guztia Loiolako Kuartelen lursailean garatuko den eremua kontuan hartu gabe”.

Azkenik, Kerman Orbegozok adierazi du, Udalak kontu orekatuak dituela, eta horri esker legealdi honetarako Udal gobernuak duen ibilbide orria gauzatzeko beharrezkoak izango dituen baliabideak eskura izango dituela. Hortaz, honakoa gaineratu du: “Hiri dinamiko baten alde egiten dugu; hiritarren bizi kalitatea bermatzen duen hiria; auzo guztietan inbertsioak egiten dituen; egoera zaurgarrienean dauden donostiarrak zaintzen dituen; eta hiriaren garapena eta iraunkortasuna sustatzeko neurriak martxan jarri eta burutzen dituen. Hau da, harro egoteko eta gustura bizitzeko hiria. Eta aurrekontu honek helburu horiek guztiak lortzeko eta Donostiak etorkizunean izango dituen erronkei aurre egiteko bideratuta dago”.

FFFM delakoaren ekarpen handiagoa

Aurrekontuari zuzenketak egiteko epean Udalak Finantziatzeko Foru Funtzaren (FFFM delakoren) likidazioaren berri izan zuen Udalak. Eta likidazioaren ondorioz Gipuzkoako Foru Aldundiak Donostiako Udalarari egingo dion diru ekarpena 1.130.000 eurotan handituko da.

Horiek horrela, Orbegozok esan du: “Diru kopuru hori, aurrekontu-proiektuan jasota ez zeuden beste hainbat proiektu gehitzeko baliatu dugu, baita dagoeneko jasota zeuden beste batzuk osatzeko ere”.

Ondorioz, segidako proiektuak 2024ko aurrekontuan sartu dira:

- 25.000 euro Egia auzoan, Blas de Otero plazaren inguruan, Udaltzaingoaren eta Ertzaintzaren polizia-etxe mistoa egiteko.
- 15.000 euro Gipuzkoako Kirol Egokituen federazioari diru-laguntza emateko, eskola kirolako ekimenak antolatzeko.
- 10.000 euro gehiagoko diru ekarpena Tabakalera zentroari.
- 7.800 euro Bidebieta eta Anoetako Gaztelekuetan hainbat hobekuntza egiteko.
- 15.000 euro osasun mentaleko programa garatzeko.
- 3.000 euro Anoeta Izotz taldeari diru-laguntza emateko.
- 100.181 euro gehiago Kontingentzia fondoan sartzeko.
- 2.000 euro EHUrekin hitzarmena sinatzeko.
- 334.000 euro gehiago Sorleku parkean zegoen aurreikuspenari.
- 200.000 euro gune publikoan irisgarritasuna hobetzeko.
- 45.000 euro Illunben autokarabanentzako aparkalekua egokitzeko.
- 8.560 euro Ziur fundazioaren kapital gasturako ekarpena.
- 60.500 euro Etxarrienen berokuntza sistema berria jartzeko.

Prensa oharra

Nota de prensa



- 15.000 euro Egiako haurtxoko eta gaztelekuan aire girotu sistema berria jartzeko.
- 12.100 euro La Sirena aterpetxean hainbat hobekuntza egiteko.
- 60.000 euro Artikutzako finkaren sistema elektrikoa berritzeko.
- 37.263 euro Artikutzarako ibilgailu bat erosteko.
- 26.600 euro Iraunkortasun sailarentzako ibilgailu bat erosteko.
- 25.736 euro Urban Klima 2050 estrategia lantzen jarraitzeko.
- 100.000 euro Parte Zaharrean hondakin bilketa hobetzeko proiektu bat garatzeko.
- 7.260 euro Tabakalerako plaza berriaren proiektua egiteko.
- 20.000 euro gehiago hiriko hainbat eraikinetan instalazio fotovoltaikoak jartzeko.

Eduki ekonomikorik gabeko zuzenketak

Aurrekontu-proiektuaren tramitazioa amaitu da Elkarrekin Donostiak, PPK eta EH Biluduk aurkeztu dituzten edukirik gabeko 7 zuzenketaren onarpenarekin.

Horrenbestez, udalbatzarrak onartu ditu Elkarrekin Donostia udal taldearen eduki ekonomikorik gabeko hiru zuzenketa, hain zuzen ere, Donostia guztia etxebizitza gune tentsionatua izendatzeko, berdintasun ordenantza egiteko eta Parte Zaharreko lokalen ikuskapenarekin lotura duten zuzenketak; PP udal taldearen bide publikoan dauden margoketak garbitzeko brigada bat sortzeko lotura duen zuzenketa; eta EH Bilduren hiru zuzenketa, hain zuzen ere, Pio XII.ean trafikoa arintzearekin, lursail publikoetan etxebizitza publikoen portzentaia maximizatzearekin eta aurrekontuan berdintasunari zuzendutako aurrekontu-sailekin lotura duten zuzenketak.

Donostian, 2024ko martxoaren 21ean